

# **Covid-19ak EAEko kultura-sektorean duen eraginaren jarraipena**

## **Krisialdiaren behatokia**

**Bigarren jasoaldiaren emaitzak**

2020ko uztailaren 30a



**Kulturaren  
Euskal Behatokia**  
Observatorio Vasco  
de la Cultura

# Aurkibidea

1.	Aurkezpena .....	3
2.	Testuingurua .....	4
3.	Emaitzak .....	6
5.1.	Jardueraren bilakaera .....	6
	Bilakaera .....	6
	Aldaketak jardueran .....	7
	Aurreikuspenak.....	10
5.2.	Enpleguaren bilakaera .....	12
	Bilakaera .....	12
	Aurreikuspenak.....	14
5.3.	Diru-sarreraren bilakaera .....	15
	Bilakaera .....	15
	Aurreikuspenak.....	17
5.4.	Sektoreari laguntzeko neurrien ebaluazioa .....	18
4.	Azken iruzkina .....	19
	Eranskina .....	21

## 1. Aurkezpena

Inkestaren **helburuak eta planteamendua**:

- Kulturaren Euskal Behatokiak **Krisialdiaren Behatokiaren** datu gehiago aurkezten ditu, Covid-19ak kultura-sektoreetan duen eraginaren jarraipena eta azterketa egiten duen tresnarenak, hain zuzen.
- Bigarren jasoaldi honen emaitzei esker, testuinguru orokorraren aurrean kultura-sektoreen **egoeraren jarraipena** egin dezakegu, pandemia hasi zenetik unerik kritikoenean aurreikuspen sozioekonomiko orokorren arabera. Sektorian izandako hasierako eraginaren berri izateko, honako hau kontsulta daiteke: [hasierako txostena](#).
- Bilakaerari buruzko datu horietan oinarrituta, azterlan honetan EAEko kultura-eragileen **gogo-aldarte**a nolakoa den jakin dezakegu.

Inkestaren **fitxa teknikoa**:

- Autoadministratutako online inkesta (LimeSurvey).
- 2020ko uztailaren 13tik 26ra bitarte egon da zabalik.
- Autohautatutako lagina.
- $K = 91$
- Honako hauei buruzko informazioa:
  - Eragileak identifikatzeko datuak
  - Jardueraren hiru hileko bilakaera
  - Enpleguaren hiru hileko bilakaera
  - Diru-sarreraren hiru hileko bilakaera
  - Aurreikuspenak, konfiantza eta gogo-aldarte
  - Laguntza-neurrien balioespena

[Eranskinen](#) **laginaren ezaugarriak** aurki daitezke, askotariko profilekin, dela titularraren ikuspegitik begiratuta, dela balio-katean betetzen duten posizio nagusiari dagokionez.

Era berean, eragina kalkulatzeko **erabilitako adierazleak** ere kontsulta daitezke, aurreko 2019. urteko hiruhilekoekin egindako konparazioan oinarrituta.

## 2. Testuingurua

Kultura-eragileek une honetan bizi duten errealitatea ulertu ahal izateko, garrantzitsua da bigarren informazio-bilketa hau zein testuingurutan egin den jakitea: 2020ko uztailaren bigarren hamabostaldian. Une delikatua izan zen, izan ere:

- Alarma-egoera indargabetu zenetik (ekainaren 21etik) hiru aste igaro ziren, normaltasun berria esan zitzaion horretan aurrera gindoazen eta hauteskundeak izan berriak ziren. Uda ez den uda batean, eta jende guztiarentzat ezohikoa izango zen oporraldiaren atarian: batzuentzat lanik ez dutelako zuzeneko kulturaren arloan, bereziki, normalean bizi-bizia izaten denaldi batean; beste batzuentzat erabat desagertzen ez den behin-behinekotasuneko eta urgentziako sentsazioagatik.
- Berragertzeak nonahi sortzen hasiak ziren, eta kutsatzeen bigarren jasoaldiaren hasiera zen, ziurgabetasuneko une gorena, kultura-jardueran eragin dezaketen balizko neurri murriztaile gehiago ezartzeko aukeraren aurrean. Txosten idatzi dugunean, Osasun Sailak gaueko aisialdia murrizteko neurriak ezarri berri ditu.
- Sektorea nekatuta, uzkur eta, kasuren batean, minduta zegoen hartutako neurriak zirela-eta. Bigarren jasoaldi honetan erantzun gutxiago jaso izanak (% 39 gutxiago, apirileko lehen jasoaldiarekin alderatuta) eta inkestan helarazitako iruzkin kualitatiboek hori adierazten dute.
- Datu ekonomikoak minimoetan zeuden, [sekula ikusi gabeko eragin negatibo](#)aren aurrean. Ekonomian izandako eragin globala biziki larria izan da orain arte, urteko bigarren hiruhilekoan BPGan izandako atzeraldia sekula ikusi gabekoa izan baita. 2020ko bigarren hiruhilekoan, EAeko Barne Produktu Gordina (BPG) % 20,1 murriztu da 2019ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta. Egutegiaren eta urtaroen efektuak kendu ostean, hiruhilekoen arteko datuei erreparatuta, BPG zenbatetsiak % 16,9 egin du behera.
- Enplegua –lanaldi osoko lanpostu baliokidetzat neurtu dugu– % 19,8 murriztu da aurreko urteko hiruhileko berari dagokionez. Hiruhilekoen arteko datuetan, egutegiaren eta urtaroen efektuak zuzendu ostean, hiruhilekoen arteko aldakuntza -% 17,0 dela zenbatesten da.

**2020ko bigarren hiruhilekoko BPGa EAE  
(Eustat):**

-% 16,9 aurreko hiruhilekoarekin alderatuta

-% 20,1 urtearteko aldakuntza

**Enpleguari buruzko zenbatespenak:**

-% 17,0 aurreko hiruhilekoarekin alderatuta

-% 19,8 urtearteko aldakuntza


- Aurreikuspen ekonomikoen arabera unerik txarreanean –jaitsiera bigarren hiruhileko honetan metatuko dela aurreikusten baitute–, nahiz eta oraindik ez dakigun aurreikusitako gorakada –partziala bada ere– gauzatuko ote den. Munduari dagokionez, 2020ko bigarren seiuhilekoan pandemia arinduko balitz eta mundu osoan hartutako politika-neurriek eragin hori leuntzeko balio izango balute, Nazioarteko Diru Funtsaren proiektzioa da munduko hazkundea % 5,8ra igoko dela 2021ean. Europako Batzordeak, maiatzeko aurreikuspenetan eta irailean zuzenketak egiteko zain, 2020rako hazkundea eurogunean -% 7,7 jaistera espero du, baina 2021erako susperraldi handiagoa (% 6,3).

### 3. Emaitzak


#### 5.1. Jardueraren bilakaera

##### Bilakaera

1. grafikoa Jardueraren bilakaera orokorra (%)



2. grafikoa Sorkuntzako eta produktzio jardueraren eta jardura publikoen bilakaera (%)



- Bigarren hiruhilekoko datuei erreparatuta, **jarduera minimoetan** dagoela ikusten da, aurreko urteko hiruhileko berari dagokionez % 71ko atzeraldia izan baita.
- Oro har, alarma-egoerak bigarren hiruhilekoan izan duen eraginaren adierazgarri dira datuak, hiruhilekoaren zati handi batean


egon baita indarrean alarma-egoera, eta deskonfiamenduaren ondoren soilik ekin baitzitzaien berriro jarduera jakin batzuei. Jarduera ekonomiko orokorrean bezalaxe, eragin negatibo handiena bigarren hiruhileko honetan gertatuko da, ziurrenik.

- Hala eta guztiz ere, lehenengo hiruhilekoan izan zuen eragina jada, martxoaren bigarren hamabostaldian dekretu bidez ezarritako alarma-egoerarekin.
- Jarduera motaren arabera jarduerak bereiz aztertuz gero, eragina askotarikoa izan dela ikus daiteke:
  - Logikoa denez, **jarduera publikoa** ixteak eragina izan du emanaldi eta erakusketa publikoetan; izan ere, **ia erabat geldiarazita** daude.
  - **Sorkuntzaren** kasuan ere, eragina oso handia da, eta bigarren hiruhilekoan jarduera **minimoetan** dago.
  - Azkenik, **produkzioko** jardueretan **gai izan dira nolabaiteko mailari** eusteko, baina murrizketa oso garrantzitsua da, hala ere, aurreko hilekoarekin alderatuta gutxi gorabehera erdira jaitsi denez. Nolanahi ere, enpresen garapenerako eragin oso larria da hori ere.

### ***Aldaketak jardueran***

- Egon diren edo dauden murrizketa motekin eta garatutako jarduera bakoitzaren nondik norakoarekin lotuta daude eraginak.
- Baina eragile guztiak ez daude, beraz, neurriak ezartzeko moduan:
  - Erantzun dutenen **% 16k diote beren jardueran ezin dela aldaketa** esanguratsurik egin.
  - Gainera, **% 9k diote ez dutela baliabide** nahikorik.
  - Soilik % 7k diote ez dela beharrezkoa beren jarduera egokitzea, eta zenbait kasutan, jarduera mota dela-eta, zuzeneko eraginik ez dagoela ere adierazi dute.
- Hartutako neurriei erreparatuta, estrategiak kuantifikatu ditzakegu.

## 3. grafikoa Jardueran egindako aldaketak (%)



1. Gehien aplikatu diren hiru neurri nagusiak lanerako neurri higienikoak dira (% 46,6) lehenik, eta publikoarentzat (% 33) bigarrenik. Horien atzetik, jarduera publikoaren egokitzapen txikiak datoz, hau da, neurri higienikoak eta segurtasunekoak publikoarentzat.
  - o Hortaz, lehen postuan **arintze-estrategiak** daude; horien bitartez, jarduerarekin jarraitu ahal izatea lortu nahi dute, baldintza berrietara ahalik eta eraldaketa txikiarekin egokituta. Kultura-erakundeek ildo horretan egindako ahalegina handia dela nabarmendu behar da eta, oro har, publikoak ongi erantzun diela eskatutako osasun-neurriei. Eta hori emaitzetan sumatzen da: orain arte ez da kultura-jarduerarekin lotutako agerraldirik hauteman. Beraz, jarduera erabat segurutzat har daiteke.




2. Jarraian, jardueraren egokitzapen digitala dator (% 26); eragileak egin du egokitzapen hori zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko, unean uneko murrizketa nagusiei iskin egiten dien ingurunean.
    - Horrela, bada, une honetan, bigarren postuan **berraktibatze**ko **estrategiak** daude, eta ohiko jardueran aldaketa garrantzitsua egitea dakarte. Kasu horretan, nahiz eta iritzi orokorraren arabera zuzeneko jarduera presentziala ezinbestekoa eta, beraz, ordezkazina den kultura-jardueraren zati handi batean, ekintza digital horietako batzuek izan duten emaitza ona ikusita, horiei eusteko asmoa dute, baita etorkizunean indartzeko asmoa ere.
  3. Hirugarren postuan, ehuneko txikiagoarekin, jardueraren formatuan eta espazioan egindako aldaketak identifikatu dituzte. Kasu horretan, jarduera bera eraldatzen duten neurriak dira, murrizketei iskin egin nahi izan gabe eta, aitzitik, konponbideak bilatuta.
    - Hortaz, jarduera **egokitzeko** **estrategiak** ezarri dituzte, eta garrantzitsuak dira, bereziki, emanaldi eta erakusketa publikoen kasuan.
  4. Azkenik, aldaketa sakonenak dira gutxien agertu direnak eta horien artean daude jarduera motaren aldaketak (% 10). Alegia, eragileak ohikoak zituen jardueraz zeharo bestelakoak egiten ditu.
    - Horrelako neurriak **berrikuntza**ko **estrategia**tzat hartzen dira, erabateko birformulazioa dakartenak.
- Horrela, bada, Covid-19aren aurrean hainbat kultura-estrategia identifikatu dira. Estrategia horien hedatze-maila bat dator estrategiek dakarten eraldaketa-mailarekin, honako koadro honetan laburbilduta ikus daitezkeenez:


Kultura-estrategiak Covid-19aren aurrean			
Ohikoenak Eraldaketa txikiak		Gutxien ezarritakoak Eraldaketa handiak	
Arintzea	Berraktibatzea	Egokitzea	Berrikuntza
Neurri higienikoak eta espazioaren eta formatuaren egokitzapen txikiak	Jarduera eremu digitalera eramatea, aldatu gabe	Aldaketa garrantzitsuak jardueraren espazioan eta formatuan	Egiten den jarduera mota eraldatzea

## Aurreikuspenak

4. grafikoa Jarduerari buruzko aurreikuspenak 3. hiruhilekorako (%)




5. grafikoa Konfiantza susperraldi orokorrean eta sektorearen susperraldian (%)




- Berehalako bilakaerari dagokionez, datuen arabera **perspektiba dibergenteak** daude: bloke batean perspektibak argi eta garbi ezkorak dira, eta bestean baikorrak, baina neurrian:
  - Egoerak okerrera egingo duela uste dutenen artean, okerrera nabarmen egingo duela adierazteko joera da nagusi.
  - Alabaina, hobera egingo duelakoan dauden artean, hobekuntza txikia izango dela adierazteko joera dute. Ildo beretik, jasotako iruzkinetan adierazten zutenez, bilakaera egoera baikorragoetarantz izango zelako itxaropena izatearen arrazoia da une honetako erreferentziak ezin duela okerragoa izan.
  - Nolanahi ere, berdin geratuko dela uste dutenak bosten bat baino ez dira.
- Etorkizuneko susperraldian duten konfiantzari dagokionez, jarduera propioaren nahiz jardueraren orokorraren kasuetan sententzia **zuhurtziarekin** lotuta dago:
  - Eragile gehienak 4tik 6ra bitarte kokatzen dira. Bi kasuetan, batezbestekoa 4'4 inguru da.
  - Jardueraren propioaren kasuan, ezkortasun-maila handiagoa da: 1etik 3ra bitarte kokatzen direnen kopurua handixeagoa da.

### 6. grafikoa Konfiantza susperraldian titulartasunaren arabera (batezbestekoak)



### 7. grafikoa Konfiantza susperraldian bolumen ekonomikoaren arabera (%)




- **Titulartasun pribatuko eragileek konfiantza txikiagoa dute** titulartasun publikoko eragileek baino, egoeraren aurrean duten arrisku handiagoaren adierazgarri.
  - Eragile pribatuen artean ezkortasuna handiagoa da jarduera orokorrari dagokionez eta eragile publikoak, berriz, baikorragoak dira jarduera orokorrari dagokionez, jarduera propioari dagokionez baino.
- 
- Bestalde, **etorkizunean duten konfiantza-mailak behera egiten du eragilearen bolumen ekonomikoa handiagoa** den heinean.
    - Eragile txikiak ahulagoak izatea izan daiteke horren arrazoia, baina egokitzeko gaitasun handiagoa ere badute; aitzitik, eragile handien sendotasunak kalteberago ere bihurtzen ditu kontrako egoera baten aurrean, egiturak mantentzearekin lotutako kostu finkoak dituztelako eta zorpetze-maila handiagoa dutelako.
  - Kasu guztietan, konfiantza apur bat txikiagoa da jarduera orokorraren kasuan, jarduera propioaren kasuan baino.


## 5.2. Enpleguaren bilakaera

### Bilakaera

8. grafikoa Enpleguaren bilakaera orokorra (%)




9. grafikoa Enpleguaren bilakaera orokorra sexuaren arabera (batezbestekoak)




- Covid-19aren aurreko egoeran, otsailaren 1ean, eragile bakoitzak batez beste 4 langile zituen.
- Apirilaren 1ean, alarma-egoeran, enplegua % 30 murriztu zen.
- Uztailaren 1ean, normaltasun teorikoan geundela jada, **enplegua oso gutxi suspertu da**. Otsailarekin alderatuta, jaitsiera % 25 da, apirilaren baino % 5 gutxiago.
- Eragina ez da berdin-berdina izan sexuen artean: emakumeen kasuan jaitsiera apur bat txikiagoa izan da eta susperraldia handiagoa.

10. grafikoa Enpleguaren bilakaera titulartasunaren arabera (%)




11. grafikoa Enpleguaren bilakaera bolumen ekonomikoaren arabera (%)



- Titularraren arabera bereizita, **sektore publikoan eragina askoz txikiagoa izan zela** ikus daiteke, baina askoz ere egonkorragoa izaten ari da. Eragile pribatuen kasuan, langile kopuruaren jaitsiera % 36 izan zen, baina uztailearen 1ean susperraldi txiki bat izan zuen, otsailaren 1arekin alderatuta jaitsiera % 29 izanik.
- Eragileen bolumen ekonomikoaren arabera aztertuz gero, **diru-sarrera txikiagoak dituzten eragileen kasuan eragina txikiagoa** dela ikus daiteke, eta askoz ere handiagoa ahalmen ekonomiko handiagoa dutenen kasuan.
- Hein batean, bolumen ekonomiko txikiagoko eragileen enpleguaren batezbestekoa txikiagoa delako gertatu zen hori, espero zitekeenez. Covid-19 baino lehen, batez beste 2,23 langile zituzten, eta kontrako muturrean, aldiz, 6,96 (250.000 euro baino gehiago).
- Bolumen ekonomiko handieneko eragileen kasuan, uztailearen 1ean oraindik ere beheranzko joerari eusten diote, joera orokorraren kasuan ez bezala, susperraldi txikia izan baita azken horretan. Horri dagokionez, izan ditzaketen zailtasun handiagoak lotura izan dezake jardueraren susperraldiari buruz agertzen duten konfiantza txikiagoarekin (7. grafikoa).

## Aurreikuspenak


12. grafikoa Susperraldia eta ABEEE egoeran zeuden langileak berreskuratzeko aurreikuspena hirugarren hiruhilekorako (%)



→ ABEEEak izan dituztenen % 36ri dagokienez, soilik % 39,4ren kasuan hasi dira berriz lanean edo urteko hirugarren hiruhilekoan hastea aurreikusi da.

→ Enpleguaren **susperraldia**, beraz, **mantso** joango dela aurreikusten da, ez baita ikusten pandemia-adierazpenaren aurreko mailetara iristea ahalbidetuko duen egoerarik sortuko denik.

13. grafikoa Lan-kontratazioen aurreikuspena hirugarren hiruhilekorako (%)




→ Galdera honi erantzun dioten % 60ri dagokienez (aurreikusten zen ez zela egokia eragile mota guztientzat), soilik % 11ren kasuan aurreikusi da langileak berriz lanean hastea urteko hirugarren hiruhilekoan.


### 5.3. Diru-sarrereren bilakaera

#### Bilakaera

14. grafikoa Diru-sarrereren bilakaera orokorra (%)




15. grafikoa Hiruhilekoko gastu eta diru-sarrereren bilakaera orokorra (batezbestekoak)




- Hiruhilekoan izandako bilakaerari dagokionez, 2019ko emaitzekin alderatuta bigarren hiruhilekoan **jaitsiera handia** izan da.
- Lehenengo hiruhilekoarekin alderatuta, aldea nabarmena dago diru-sarreretan, baina hiruhilekoko gastuak berdintsuak dira (batez beste 65.000 € inguru).
- Bigarren hiruhilekoko balantzean diru-sarreretan jaitsiera oso handia gertatu dela ikus daitekeen arren, balantzea positiboa da. Hori ulergarria izan daiteke neurriek izan duten eragin positiboa kontuan izaten badugu, hala nola ABEEEak, autonomo eta ETEei emandako ezohiko laguntzak, likidezia eskaintzeko neurriak eta zerga eta betebeharrak fiskalak atzeratzea.

16. grafikoa Diru-sarrerren bilakaera titulartasunaren arabera (%)



17. grafikoa Diru-sarrerren bilakaera bolumen ekonomikoaren arabera (%)




- Berriro ere, diru-sarrerren bilakaerari erreparatuta, hasieran eragina antzekoa den arren, bigarren hiruhilekoan eragile publikoek hein handiagoan geldiarazi dute kolpea.
- Bolumen ekonomikoaren arabera aztertuz gero, tarteko eragileek zailtasun bereziak izan dituztela ikus daiteke, bigarren hiruhilekoan % 73,1eko eta % 88,4ko murrizketa izan baitute 2019ko aldi berarekin alderatuta.
- Ildo beretik, bolumen ekonomiko txikiagoko eragileak dira, termino erlatiboetan, eragin txikiena jasaten dutena (20.000 €tik beherako eragileek lehen hiruhilekoan izandako emaitza positiboa eragile bakar baten ezohiko diru-sarrera baten ondorioa da). Hala eta guztiz ere, ez da ahaztu behar eragile txiki batentzat diru-sarrerren erdia galtzeak zer esan nahi duen, baldintza normaletan urriak badira termino absolutuetan.
- Bi ikuspegiak lagungarriak dira eraginaren gainean hausnarketa egiteko: kontua ez da eragina handiagoa edo txikiagoa izan den, baizik eta zer **eragin mota** izan den. Eragileek potentzialtasun eta muga jakin batzuekin egiten diete aurre egoerari: **hartu beharreko estrategiek eragile bakoitzaren testuinguruan dute zentzua**, eta nekez orokortu daitezke.



## Aurreikuspenak


### 18. grafikoa Galera ekonomikoen aurreikuspenak aldatzea hasierako aurreikuspenari dagokionez (%)



- Covid-19ak eragindako urteko galerei dagokienez, pandemiaren hasieran egindako aurreikuspenetan joera orokorra okerrera egitearekin lotzen da, argi eta garbi. Zehazki, **okertze garrantzitsuarekin**.
- Gaur egungo balioespena hasierakoa baino okerragoa da. Etorkizunera begirako konfiantza ezkortasunaren eta zuhurtziaren artean kokatzen zela kontuan izanik, zera esan dezakegu, hasierako uneetan egoerak iragankorragoa zirudiela.
- Litekeena da informazioa bildu genuen unean, hau da, uztaila bete-betean, berragertzeak nonahi eta pandemiari buruzko berri etsigarriak nagusi zirela, bizi izandako osasun-baldintzek eragina izatea ikuspegi ezkor horretan. Egia esan, ez du ezerk edo ia ezerk adierazten egoerak hobera egingo duenik. Datozen hilabeteetako bilakaera funtsezkoa izango da egoera sozioekonomiko orokorrerako eta, zalantzarik gabe, baita kultura-sektorerako ere.


## 5.4. Sektoreari laguntzeko neurrien ebaluazioa

19. grafikoa Laguntzeko neurri publikoen onuradun kopurua (%)



\*Eragile pribatuak soilik

20. grafikoa Laguntzeko neurri publikoen onuradun ez izateko arrazoiak (%)



\*Laguntzen onuradun izan ez diren eragile pribatuak soilik

- Jarraipenaren datuen arabera, eragile asko ez dira onuradun izan. Eskura ditugun datuekin ezin dugu esan alderik ba ote dagoen eragile mota baten eta besteen artean, bolumen ekonomikoaren arabera.
- Egoera horren arrazoiak bai azter ditzakegu, eta baldintzak ez betetzea da arrazoi nagusia, argi eta garbi. Sektorearen zati handi batek bizi duen prekaritatea eta heterogeneotasuna egon liteke errealitate horren atzean, baita neurri publikoek hautaketa egiteko baldintzak zehaztu behar izatea ere. Artistaren estatutu berriaren proposamenean bertan jasotzen denez, sektoreko eragile askoren jokabidea ez dator bat beste sektore batzuetako eragileen garapen normalarekin (diru-sarrerak ez dira egonkorrak, lana aldi baterako izaten da, profesionalizaziorik eza...), eta horregatik **neurriak modu berezian diseinatu** behar dira, egoerari aurre egiteko moduan.

#### 4. Azken iruzkina

Covid-19ak kulturaren sektorean izandako eraginari buruzko azterlana egin da, eta lehen txostenarekin Covid-19ak testuinguru hurbilenean eragindako egoeraren **argazkia** lortu zen: egoera heterogeneoa zela geratu zen agerian.

Jarraipeneko azterlan honetan **bilakaera** aztertu dugu oraingoan, eta heterogeneotasun hori agertu da berriro ere. **Enpleguan** eta **diru-sarreretan** izandako eraginari buruzko datuek honako hausnarketa hau egitera bultzatu gaituzte:

- Eragile txikien ezaugarrietako bat da aldaketetara egokitzeko arintasunez eta malgutasunez jokatzeko dutela; ezaugarri hori potentzialtasuna eta muga ere bada, aldi berean, sendotasunik ez izatea mugatzailea baita.
- Era berean, kolpeari aurre egiteko bolumen handiagoa duten eragileen sendotasun hori muga ere bada, aldi berean, egokitzeko eta berrikuntzarako gaitasuna murrizten duen aldetik.

Emaitzak ikusita eta sektorea ezagututa susma daitekeenez, eragile motari dagozkion alde nagusiak **titulartasuna** (publikoa edo pribatua) eta **izaera** dira, funtsean izan **autonomo**, **mikroETE** edo egitura txikiko elkarte, edo izan sektoreko **trakzio-eragile**.

Biziraupen honetan, inplikazio garrantzitsuetako bat honako hau da:

- Estrategia guztiek ez dute eragile guztientzat balio, eragile mota bakoitzak testuinguru jakin bati egin behar dio aurre, baliabide jakin batzuekin.
- **Estrategiak ezin dira orokortu**, eragile mota bakoitzak aukera desberdinak ditu, eta eraginkortasun-maila handiagoa edo txikiagoa izaten dute testuinguruaren arabera.

Zehazki, **jarduerari** eusteari dagokionez, egindako jarraipenari esker estrategia posibleak ikusgai jarri eta kontzeptualizatu daitezke:

- 1. Arintzeko estrategiak:** neurri higienikoak hartzean oinarritzen dira, eta jardueraren espazioa eta formatua zertxobait egokitzean.
- 2. Berraktibatzeko estrategiak:** jarduera ingurune digitalera eramatean oinarritzen dira, jardueran bertan eraldaketa garrantzitsurik egin gabe.
- 3. Egokitzeko estrategiak:** jardueraren espazioan eta formatuan aldaketa garrantzitsuak ezartzean oinarritzen dira.
- 4. Berrikuntzako estrategiak:** egiten den jarduera mota eraldatzean oinarritzen dira eta, horretarako, jarduera berriak arakatzeko dira.

Ordena horretan, lehenengo biak dira estrategia eskuragarriak, eta derrigorrezkoak direnez jarduerari eusteko edo berriz ekiteko, hedatuenak ere badira. Azken biek eraldaketa handiagoak egitea dakarte eta, beraz, ez dira hainbeste zabaldu.





Bukatzeko, Covid-19ak sortu duen krisialdia kulturaren eragin bikoitza izaten ari dela nabarmendu nahi dugu:

- Alde batetik, sektorearen jasangarritasunean, enpresa-aldetik ahula den eta prekarietatea egiturazkoa duen sektorea izanik.
- Bestetik, kultura-eskubideak baliatzean.

Bi ondorio horiek erantzun osagarriak eskatzen dituzte, elkargune asko dituzte eta estrategia sistemikoen bitartez egin behar zaie aurre. Urgentziaz haratago, kulturaren arloko politika publikoek sistema adimendunak ezarri behar dituzte, gero eta konplexutasun handiagoko egoerari eta saihestu ezin den ziurgabetasunari erantzun ahal izateko.

## Eranskina

### Laginareen ezaugarriak



### Erabilitako adierazleak

- Eragina aztertzeko **aurreko urteko datuekin alderatu da.**
- Jarraipena **hiruhileko** bakoitzeko egin da:
  1. Lehen hiruhilekoa: urtarrila, otsaila, martxoa; bukaera aldera alarma-egoera ezarri zen.
  2. Bigarren hiruhilekoa: apirila, maiatza, ekaina; bukaera aldera deskonfinamendua hasi zen.
- Jarduera, enplegua eta diru-sarrerak alderatu dira:
  - **Jarduera kopurua:** sorkuntzakoa, produktiokoa eta jarduera publikoak.

- **Langile kopurua:** gizon eta emakumeak bereizi dira, egiturazko langileak edo plantillakoak, betiere kontratu mota eta lanaldi mota kontuan izan gabe.
- **Diru-sarreraren kopurua:** hiruhilekoko diru-sarreraren batura.